



Arartekoaren 2021IR-495-21 Ebazpena, 2021eko uztailaren 28koa. Horren bidez etxegabetze-prozedura baten ondoren familia batek etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko duen beharrari buruzko jarduketa amaitzen da.

Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar baten kexa. Emakume batek bere familiak bizi zuen egoera zailaren berri eman zuen: laster ohiko etxebizitzatik botako zituzten eta ez zuten beste bizilekurik.

Horren eildotik, Arartekoak egiaztatu zuen bizikidetz-unitatea sei kidek osatzen zutela eta haietako lau adingabeak zirela. Halaber, Arartekoak jakin zuen Arabako Etxebizitzaren lurralde ordezkariak bi aldiz ukatu ziela Babestutako Etxebizitza "Etxebide"ko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena ematea, arazoak behar bezala egiaztatu gabe.

Gainera, kexagileak adierazi zuen hainbatetan joan zela Alegria-Dulantziko Udaleko gizarte zerbitzuetara bere etxebizitzaren arazoari irtenbide bat bilatzeko asmoz.

2. Arestian azaldutakoa ikusita, Arartekoak lankidetz-eskaera bat igorri zion hasieratik eta premiaz Alegria-Dulantziko Udalari, erreklamazioaren xedearen oinarria egiaztatzeko.

Era berean, aldez aurreko gogoeta batzuk helarazi zizkion. Horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

3. Egindako lankidetz-eskaerari erantzuna emateko, Alegria-Dulantziko Udaleko alkateak idatzi bat aurkeztu zuen erakunde honen erregistroan. Idatzi horretan azaltzen zuen zer egin zuten gizarte zerbitzuek kexagileak eta haren familiak etxebizitza duina eta egokia edukitzeko eskubidea behar bezala bermatzeko.

Zehazki, idatzi horretan Alegria-Dulantziko Udalak honako hau jakinarazi zion Arartekoari:

- *"La familia se inscribe en ETXEBIDE en dos ocasiones (junio y noviembre 2020), se les deniega la inscripción como demandantes de vivienda social, por superación de ingresos. Desde el servicio social (...) se solicita a la Viceconsejería de Vivienda la excepcionalidad del requisito de ingresos máximos, adjuntando información económica actualizada"*

Era berean, Alegria-Dulantziko Udalak jakinarazi zuen herrian ez dagoela babes publikoko etxebizitzarik ez zuzkidura-bizitokirik premiazko egoerei aurre egiteko. Nolanahi ere, Arartekoari jakinarazi zion Etxebizitza Sailburuordetzari salbuespenezko prozeduraren bidez esleitzeko eskaera izapidetzen hasi zela.

4. Alegria-Dulantziko Udalak emandako informazioa ikusita, eta Babestutako Etxebizitza "Etxebide"ko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena ematea bi aldiz ukatu zitzaizela kontuan izanda, Arartekoak lankidetzak eskatera bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari.

Horri erantzunez, 2021eko uztailaren 1ean erakunde honen erregistroan sartu da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko sailburuaren Kabineteko zuzendariaren idatzia, eta horri erantsita Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzako arduradunak egindako txostena ere bai.

Hain zuzen ere, igorritako txostenak honako hau dio:

- *"...se resolvió favorablemente el recurso de alzada interpuesto, dado que, aplicada la fórmula de ponderación y los coeficientes correctores (...), los ingresos ponderados en el ejercicio fiscal 2019 ascendían a la cantidad de 35.357,26€ y, en consecuencia, eran inferiores al límite máximo de 39.000€ que prescribe la normativa."*

Ondorioz, Arabako Etxebizitzaren lurralde ordezkariek alta eman zion kexagilearen etxebizitza babestuen eskaerari Babestutako Etxebizitza "Etxebide"ko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan.

Gainera, zuzeneko esleipenaren espedientearen izapidetze egoerari dagokionez, Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak berretsi zuen babes publikoko etxebizitza bat errentamendu erregimenean jarri zuela kexagilearentzat eta haren familiarentzat.

5. Beraz, uste dugunez beharrezko egitateak eta zuzenbideko oinarriak ditugula, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Halaber, Nazio Batuen errelatore berezi ohiak txostena egin zuen etxebizitzari buruz, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa; bertan honako hau azpimarratu zuen:



- *“El derecho a una vivienda adecuada ha sido reconocido como un derecho humano fundamental por ser indisociable de los valores fundamentales de los derechos humanos, como la dignidad, la igualdad, la inclusión, el bienestar, la seguridad de la persona y la participación pública”¹.*

2. Nazioarteko testuek eta agintariek esleitutako eginkizun horiek garrantzi handiagoa dute, are gehiago, bizikidetzaren unitatea egoera larrian dagoenean, ohiko etxebizitza utzi ondoren beste bizilekurik ez duelako.

Gainera, ez da ahaztu behar bizikidetzaren unitatean lau adingabe daudela.

3. Horrenbestez, Arartekoak gogorarazi nahi du anitzak izan direla Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordearen ebazpenak (aurrerantzean, EGKE Batzordea).

Zehazki, [2017ko ekainaren 20ko irizpenean](#)² (behin betiko bertsioa 2017ko uztailaren 21ean) EGKE Batzordeak ezarri zuen botere publikoek beren esku zeuden neurri guztiak hartu behar zituztela erabaki judizialen eta gizarte zerbitzuen ekintzen arteko koordinaziorik ezaren arazoak gainditzeko, baldin eta pertsona bat etxetik aterata etxebizitza egokirik gabe gera badaiteke.

Halaber, botere publikoek beharrezko neurriak hartu behar dituztela adierazi zen, dituzten beharrezko baliabide guztiak erabiliz, kaleratzeko prozedurak etxebizitzan bizi diren pertsonen beste etxebizitza aukera bat izateko beharrezko pausuak eman eta gero soilik egin daitezten, arreta berezia jarriz adingabeak dituzten familietan eta egoera ahulean dauden bizikidetzaren unitateetan.

Gogoeta horiek berriki errepikatu ditu EGKE Batzordeak bere [2021eko otsailaren 18ko irizpenean](#)³.

4. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena sinatu zuten estatuek hura betetzen dutela egiaztatu behar duen organoa da Haurren Eskubideen Batzordea; gainera,

¹ **Nazio Batuak. Batzar Nagusia.** Etxebizitza egokia edukitzeko eskubidea ezartzeko zuzentarauak. Nazio Batuen errelatore bereziaren txostena etxebizitzari buruz, bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa (A/HRC/43/43), 12. paragrafoa. [Linean eskuragarri]: <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G19/353/93/PDF/G1935393.pdf?OpenElement>

² **Nazio Batuak. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordea.** Batzordeak 5/2015 Komunikazioaren harira onetsitako irizpena, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunari buruzko Aukerako Protokoloarekin bat etorritik. Hemen eskuragarri: https://tbinternet.ohchr.org/_layouts/15/treatybodyexternal/Download.aspx?symbolno=E/C.12/61/D/5/2015&Lang=en

³ **Nazio Batuak. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Batzordea.** Batzordeak 85/2018 Komunikazioaren harira hartutako irizpena, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Nazioarteko Itunari buruzko Aukerako Protokoloarekin bat etorritik. Hemen eskuragarri: <https://juris.ohchr.org/Search/Details/2923>

orientazioak eman behar ditu hitzarmen hori behar bezala interpreta dadin hura ezarri behar den eremu guztietan. Kontuan izan behar da batzorde horrek, 2013an, [14. Ohar Orokorra](#); egin eta onetsi zuela [ohar horrek ezartzen du haurrak eskubidea duela bere interes gorena lehentasunez kontuan hartua izan dadin](#)⁴.

Ohar Orokor horrek ezartzen ditu haurren (eskubideen titular diren heinean) interes gorena behar bezala kontuan hartzeko betekizunak. Haurren interes gorena kontuan hartu beharra dago, batik bat, erabaki judizialetan eta administratiboetan baina baita hurrei indibidualki eragiten dieten neurrietan, eta haur guztiei edo haur jakin batzuei buruzko legeak, politikak, estrategiak, programak, planak, aurrekontuak, legegintza- zein aurrekontu-ekinbideak eta irizpenak onesteko prozeduren etapa guztietan ere.

Batzordeak azpimarratu du kontzeptu hirukoitza dela adingabearen interes gorena:

- Eskubide substantiboa: haurrek beren interes gorena lehentasunezkoztat jo dezaten duten eskubidea, ebaluatu egingo dena eta eztabaidatutako kontu baten gaineko erabakia hartzeko hainbat interes neurtzean kontuan hartuko dena, eta haur bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den aldiro eskubide hori beti aintzat hartzeko bermea. 3. artikuluko 1. paragrafoak estatuek berez bete beharreko betebeharra ezarri du, berehala aplikatu beharrekoa dena (berehalako aplikagarritasuna) eta auzitegietan aipa daitekeena.
- Interpreta daitekeen oinarritzko printzipio juridikoa: xedapen juridiko batek interpretazio bat baino gehiago onartzen baditu, haurraren interes gorena modu eraginkorrean beteko duen interpretazioa aukeratuko da. Hitzarmenean eta horren hautazko protokoloetan ezarritako eskubideek osatu dute esparru interpretagarria.
- Prozedurazko araua: haur jakin bati, haur jakin batzuen talde bati edo hurrei orokorrean eragingo dien erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek interesdun haurraren edo haurraren izan ditzakeen ondorioak (onak edo txarrak) jaso beharko ditu barnean. Prozedurazko bermeak izan behar dituzte haurraren interes gorenaren ebaluazioak eta zehaztapenak. Gainera, erabakien justifikazioak argi utzi behar du berriaz hartu dela eskubide hori kontuan. Ildo horretan, erabakia hartzea dagokien instantziek azaldu beharko dute nola errespetatu den eskubide hori erabakian; hau da, zer jo den haurraren interes gorentzat, zein irizpidetan oinarritu den erabakia eta nola neurtu diren haurraren interesak beste gogoeta batzuekin alderatuz

⁴ **Nazio Batuak. Haurraren eskubideei buruzko Konbentzioa. Haurraren eskubideen batzordea. 14.** Ohar Orokorra (2013), haurrak bere interes gorena funtsezko kontsiderazioa izateko duen eskubideari buruzkoa (3. artikulua, 1. paragrafoa).

Azken batean, haurraren interes gorena kontuan hartzeak haurraren beharrianak egoki neurtzea dakar. Hitzarmenak aitortutako eskubide guztiak erabat eta modu eraginkorrean gozatuko direla bermatzea dakar, bai eta bere garapen holistikoa bermatzea ere, haurraren garapen fisiko, mental, espiritual, psikologiko eta sozial gisa hartuta.

Beraz, eskubide substantiboa da, interpreta daitekeen printzipio juridikoa eta prozedurazko araua. Horren arabera, haur bati eragingo dion erabaki bat hartu behar den bakoitzean, erabakiak hartzeko prozesuak erabaki horrek haurraren izan ditzakeen ondorioak (aldekoak eta kontrakoak) jaso beharko ditu barnean. Erabakien justifikazioak argi utzi beharko du berariaz hartu dela eskubide hori kontuan, eta haurraren interesak zaindu direla beste gogoeta batzuekin alderatuz.

5. Hain zuzen ere, maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak (hipoteka zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak) 1. artikuluan definitzen du zaurgarritasun bereziko egoera. Zehazki, deskribatutako kasuen artean, familia ugariaren kasuak eta adingaberen bat dagoen bizikidetzak unitateak daude.
6. Arartekoak badaki noilakoa den babes publikoko errentamendu araubideko etxebizitzaren adjudikazioa arautzen duen prozedura arrunta. Izan ere, higiezinak emateko proposamenek etxebizitza behar duten pertsonen arteko lehia irizpide zorrotzak betetzen dituzte, baremazio eta kupo sistema baten arabera. Ezin da ahaztu etxebizitzaren arloko araudiak berak aipamen asko aurreikusten dituela eta aukera ematen duela beren berariazko etxebizitza premiengatik tratatu berezia jasotzen duten kasuak ohiko adjudikazio prozeduratik salbuesteko.

Izan ere, 3/2015 Legearen 32.2. artikulua honako hau xedatzen du berariaz:

- *“Etxebizitza-gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak, foru-aldundiek, udalek, kontzejuek eta toki-erakunde txikiek beraiek sustatutako babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduratik kanpo utz ditzakete ordezko etxebizitza izateko eskubidea bermatzera bideratutako etxebizitzak eta edozein desgaitasunek eragindako mendetasun-egoerak edo gizarte-bazterketaren arriskuko egoerak konpontzera bideratuak”.*⁵

Era berean, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak, 210/2019 Dekretuak aldatzen duenak (26ko 210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, kreditu erakundeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza lankidetzari buruzkoa eta etxebizitzaren arloko erregelamendu xedapenak aldatzen duena) 12. artikuluan ezartzen du maiatzaren 14ko 1/2013 Legeak (hipoteka zordunen babesa, zorraren berregituratzea eta alokairu soziala indartzeko neurriei buruzkoak) 1. artikuluan

⁵ Azpimarra Arartekoarena da.



aipatzen dituen kolektibo bereziki zaugarriei zuzenean esleitu ahal zaiela etxebizitza edo bizitokia, epai judizial baten ondorioz etxetik botaz gero.

7. Azken batean, lehen azaldutako arau-aurreikuspenak eta bizikidetzta-unitateari eragiten zioten ezohiko inguruabarrak ikusita, Alegria-Dulantziko Udalak Etxebizitza Sailburuordetzari babes publikoko etxebizitza bat esleitzeko eskatu zion.

Horri erantzunez, Etxebizitzako sailburuordeak, zegokion espedientea izapidetu ondoren, errentamendu erregimeneko babes publikoko etxebizitza baten ezohiko esleipenarekin amaitu zuen.

8. Ondorioz, Arartekoa bat dator Alegria-Dulantziko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egindako analisiarekin.

Ildo horretan, Arartekoak egiaztatu du beharrezko jarduketak egin direla etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea bermatzeko, kexagilearen eta haren bizikidetzta-unitatearen kaleratze prozeduraren ondoren, unittean hori lau adingabe daudela kontuan izanda.

Horregatik guztiagatik, eta hartutako erabakia ikusita, Arartekoak bidezkoztat jotzen du espediente hau behar bezala ebatzeko bi administrazio publikoek erakutsitako koordinazio eta lankidetzta egokia azpimarratzea.

Horregatik guztiagatik, honako ondorio hau atera dugu:

Ondorioa

Arartekoak kexa espedientea itxi eta artxibatuko du, egiaztatu duelako Alegria-Dulantziko Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak legalki aurreikusitako jarduketa guztiak egin dituztela etxebizitza duin eta egokia edukitzeko eskubidea bermatzeko, kexagileari eta haren lau adingabez osatutako bizikidetzta-unitateari kaleratze-prozedura aplikatu ondoren.